



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2919/03/27

## **Agintaldiaren bukaerak markau ditu Bizkaiko Batzar Nagusietako Kontroleko azkenengo Osokoaren tonua eta eukiak**

Bizkaiko Batzar Nagusiek agintaldi honetako Kontroleko azkenengo Osokoa egin dabe gaur goizean Gernikako Batzarretxean, Batzarren osaketea barriztauko daben datorren maiatzaren 26ko foru hauteskundeen aurretik. Agurreko tonuak eta batzarretako taldeen arteko eta taldeen eta gobernu taldearen arteko alkar aintzatespeneko mezuek ohikoa ez dan aldarteak erakutsi dabe esku-hartze gehienetan. Eguneko gai zerrendan gizarte eta ingurumen arloko gaiak izan dira nagusi, eta Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak Foru gobernuaren azkenengo lau urteen balantzea egiteko aukerea izan dau.

Rementeriak, agintaldi honetako Gobernu ekintzaren balorazioaren ganean Javier Ruiz Bizkaiko Talde Popularreko bozeroaleak egindako ahozko erantzun-eskeari erantzun deutso. Ahaldun Nagusiak, “benetako balantzea hautesleek hautestontzietan egingo dabena izango dala eta hori denpora gitxi barru ezagutuko dogula” azpimarratu dauen arren, ez dau bere balantze pertsonala ezkutau, eta, horri jagokonez, hau esan dau: “Behar asko egin dogu jaso genduna baino Bizkaia hobe izteko, eta lortu dogula uste dot”.

Rementeriak azpimarratu dauenez, oso garrantzitsua da gaur egun orain lau urte baino 28.000 persona gehiago beharrean egotea; beste 100.000 izatea Foru Aldundiaren modu bateko edo besteko gizarte artea jasoten dabenak; 117 milioi bidaiarik urtero Metroaren eta Bizkaibusen zerbitzuak erabiltea; eta azpiegitura proiektu enblematikoa, itsasadarraren azpiko tunelak, hain zuzen be, martxan egotea.

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Foru Diputatua izan da Osokoaren beste protagonista bat, eguneko gai zerrendan jasoten ziran 12 erantzun-eskeetatik lauri erantzun deutse eta. Josean Elgezabalek (Podemos Bizkaia) zaintzaile profesionalen egoeran eta menpekotasun egoeran dagozanei eskaintzen jaken zerbitzuaren kalidadean izandako hobekuntzen aurreko interesa erakutsi dau. Aldundiko arduradunak, bere erantzunean, Aldundiak ez daukala lan hartu-emonen arloko eskumenik azpimarratu dau. Beste puntu batzuk be nabarmendu ditu, etxe barruan senideak zaintzen dituen personei emoten jakezan prestazioak eta menpekotasuna daukien personek eta horreen senideek Gizarte Ekintzako Sailak eskaintzen dituen zerbitzuei emoten deusien kalifikazio altua.

Eduardo Andrés Bizkaiko Talde Popularreko batzarkideak, Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Maparen hedapenaren ganean galdetu dau, Bizkaian zerbitzu horreek “onak diran arren, bikainak izatera heldu behar garala” azpimarratuz. Sánchez Roblesek eskertu egin dau erantzun-eskearen tonua eta batzarkideak agintaldi osoan egin dauen beharra, eta “gizarte arloko beharrei ahalik eta erantzun onena emoteko helburuan bat gatoz”, zehaztu dau.

Eneritz de Madariagak (Podemos Bizkaia), bere aldetik, Mesedeetako monjek Orozkon kudeetan daben ezintasunentzako egoitzaren egoeraren ganeko informazioa eskatu dau, zentroaren kudeaketa unidatea aldatu egin dalako. Foru Diputatuak adierazo dauenez, titulartasuna aldatu ez dan arren, zentroaren baldintzen ganeko auditoretza txostena eskatu da, eta egoiliarrei emoten jaken arretaren ganean etenik bako jarraipena dago. Horrez gain, Foru Aldundiak esku hartuko dau bere egunean sinatu zan hitzarmena beteten ez bada.

Gizarte Ekintza Saileko arduradunak erantzun dauen azkenengo erantzun-eskea Arantza Urkaregik (EH Bildu) egindakoa izan da, egoitzen grebea dala eta adinekoek eskatu dituen zenbatekoen ganekoa. Isabel Sánchez Roblesek erantzun dauenez, “oso kalkulu prozedura zorrotza egin da, baina zenbateko guztiak itzultzen ari dira daborduko. Prozesua oso aurreratuta dago eta urte honetako lehenengo seihilekoan bukatu gura dogu”.

### **Iraunkortasuna eta baliabide naturala**

Elena Unzueta Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Diputatuak oposizinoak egindako hiru erantzun-eskeri erantzun deutse. Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkariak, baso moltsoetan banda marroia izeneko izurriaren gaur egungo egoeraren aurreko interesa agertu dau, eta Foru Aldundiak horri aurre egiteko gauzatu dituan jarduketan ganean galdetu dau, batez be orain denpora gitxi Espainiako gobernuak, oxido kuprosoa erabilita egiten diran aireko fumigazinoak ez onartzeko hartu dauen erabagiaren ostean. Foru Diputatuak adierazo dauenez, errekurtsio bat aurkeztu da erabagi horren aurrean, baina, halanda be, beste neurri batzuk ezarri dira, nekazaritzaren ikerketarako Neiker institutuaren gainbegiradapean, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiakaz lankidetzan martxan jarriko dan ordezeko tratamentu esperimentalala edo, muga batzuekaz Madrildik onartu dan eta lurretik emoten dan oxido kuprosoagaz egindako tratamentua, biztanleak dagozan gunek eta iturburuak babesteko, beste batzuen artean.

Josean Elgezabalek (Podemos Bizkaia) Arraiz mendian dagon Tratamentu Mekaniko Biologikorako Plantan kontroleko eta hobekuntzako zein neurri jarriko diran martxan galdetu dau, jaubea Aldundia dan instalazino batzuen egoeraren ganean enpresako batzordeak egin dituan salaketen ostean. Bertan, Q sukar eta legionella kasuak hauteman dira. Unzuetak erantzun dauenez “esku hartu da eta esku hartzen jarraituko da, beti be Aldundiaren esku dagon Garbiker enpresaren bitartez, plantako baldintzak zorrotzasun osoz kontrolatuko”.

Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko arduradunak erantzun dauen azkenengo gaia, David Lopategik (EH Bildu) Bizkaian baso-suteak ikertzeko brigadak zergaitik ez diran osatu galdetuz egin dauen erantzun-eskea izan da. Arduradunak argi eta garbi esan dau “Bizkaian basoko sute guztiek ikertzen dirala”, baina zehaztu dau Mendien foru zerbitzuko funtzionarioak “ez dirala ez ikerlariak ezta poliziak be”, eta “delitu aztarnak hautematen diranean Ertzaintzara eta fiskaltzara bideratzen dirala”.

### **La Naval eta Supersur autopistea**

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Diputatua izan da agintaldiko Kontroleko azkenengo Osoko honetan jasoten ziran beste erantzun-eske biri erantzun deusena. Lehenengoa Nuria Atienzak (Podemos Bizkaia) egin dau, eta Supersur errepidearen handitzea dala eta Bolintxuko ingurune naturalean sortzen ari diran ingurumen arloko eraginak aitatu ditu.

Pradalesek adierazo dauenez, Foru Aldundia zorrotasun osoz ari da betetzen ingurumen arloko legetasuna errepide horretan, eta, bere esanetan, “hazten jarraitzen dauen eta osatzea behar dauen obra estrategikoa da”. Ez ditu onartu autopistea gitxi erabilten dala esanez Podemos taldeko batzarkideak egindako alegazioak, “zezeilean erabilerak %12,8 egin ebalako gora, eta gaur egun batezbeste 16.000 ibilgailuk erabilten dabelako egunero, horreetatik 4.500 kamioiak”.

Bere bigarren esku-hartzean, La Naval enpresaren itxieraren mehatxuak eta ontziolaren enpresa auxiliarretan horrek daukan eraginak Sestaon eta Ezkerralde osoan eragin dauen egoerearen inguruan Foru Aldundiak hartu dituan neurriak azaldu ditu Pradalesek. Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen Saileko Foru arduradunak erantzun dauenez, igazko zemenditik, Aldundiak sektorearen egoerea aztertu dau, Gasteizko Jaurlaritzagaz eta Euskal Itsas Foroagaz alkarlanean, 24 enpresa auxiliarretatik datozen 334 langabetu identifikatu. Kolektibo hori guztia barrero lanean jartea lortu da eta, gaur egun, sektoreko edo Portuagaz eta itsasoko jardureagaz erlazionatutako beste konpainia batzuetan ari da beharrean. Izan be, Pradalesek gehitu dauenez, itsas sektorean koalifikazioa daukien 300 profesionalen beharra hauteman da, eta lanpostu horreek ezin izan dira bete. Puntu horri jagokonez, laneratze arazoak azpimarratu ditu, 45 urte baino gehiago eta lan arloko koalifikazio maila txikia daukien pertsonen kasuan, batez be.

Gaur goizean Gernikan egin dan Kontroleko Osokoaren eguneko gai zerrendan landu diran beste puntu biak Kulturako eta Ogasuneko arduradunek erantzun ditue, hurrenez hurren. Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzarkideak jatorri pribaduko kultura ekintzailetzea bultzatzeko aurrera eroandako politiken ganean itaundu dau, eta Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako Foru Diputatuak, bere Sailetik bultzatu diran eta garapen fase desbardineta dagozan proiektuen barri emonez erantzun deutso. Horreen artean, egingo dan Industria Ondarearen Museoa edo Itsasadarreko Itsas Museoaren bizibarritzea aitatu daitezke.

José María Iruarizaga Ogasun eta Finantza diputatuak, bere aldetik, Arantza Urkaregik (EH Bildu), 2018ko bagilean Bizkaiko Foru Aldundiak ezarri eban eta orain arte, finantzautako proiektuei jagokonez, oso emaitza urriak emon dituan Barrikuntzarako Funtzaren inguruan egindako erantzun-eskeari erantzun deutso. Iruarizagak zehaztu dauenez, enpresa motak kontuan izanda (startup-ak, neurri txikiko enpresak, proiektu barrizailleak...) heldutasunerako denpora gehiago behar dabe baina, edozelan be, “funtz guztiz pribadua da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez dau parte hartzen horren kudeaketan”.

### **Agurretarako uneak**

Dana dala, Kontroleko Osoko bateko erantzun-eske, erantzun eta kontra-erantzun tipikoak alderatuta, gaurkoan ikusi dan giroa ohikoa baino askoz atseginagoa eta nasaiagoa izan da, agintaldiko azkenengo osokoari jagokon moduan. Alde batetik, hurrengo Batzarretan edo Foru Gobernuan jarraituko daben ala ez ez dakitenak egon dira, eta, bestetik, datozen maiatzaren 26ko hauteskundeetako zerrendatan ez dirala egongo dakitenak.

Holan, Unai Rementeria Batzarkide Nagusiak, ez ohiko atsegintasuna erakutsi dauen alkarrizketa euki dau agintaldian bere jarduketakaz kritikoenetakoa izan dan batzarkideetako bategaz, Javier Ruiz bozeroale popularragaz, eta hemizikloaren erdian biak kurutzatu diranean eskua emon deutso. Rementeriak adierazo dauenez, “behar bada Batzar honeetan egiten dodan azkenengo esku-hartzea izango da”, eta Osokoari zuzenduta, “protagonistak zeuek zarie, eta gehienetan zuen jokabidea eredugarria izan da”, esan dau.

Javier Ruizek, bere aldetik, Bizkaiko Batzar Nagusietara ailegetea posible egin eutsen bere alderdiko kideak ekarri ditu gogora (Eduardo Barreda, Antón Damborenea eta konbidauen harmailan egon dan Nerea Llanos), eta Mahaiari, ganerako taldeei eta Batzarretako beharginei eskerrak emon deutsez, euren beharrarengaitik. Bizkaiko Batzar Nagusien “tonu ona eta kideen maila ona” azpimarratu ditu, eta Foru Gobernua eta Ahaldu Nagusia zoriondu ditu, “euren gobernu ekintza nota onagaz defendidu dabelako”. Ondorio moduan, “geure arteko alde politikoak ez dira inoiz pertsonalak izan” esan dau.

Gobernu taldeko parte bat modu berezian atsegin agertu da errepikatuko ez daben eta gaur erantzun-eskeak egin deusiezan batzarkideetako bigaz. Eduardo Andrések (Talde Popularra), “asko eztabaidatu dogu, niri batzarretako filibustero be esan deustie baina, aldi berean, akordioak be lortu doguz, gure proposamen batzuk onartu dira. Hori da etxera daroadana” esanez amaitu ditu Bizkaiko Batzarretan izan dituan esku-hartzeak. “Eskerrak emon behar deusadaz Foru Diputatuari, erakutsi dauen jarrera onarengaitik” gehitu dau. Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatuak “bere tonua eta ekarpenak” eskertu deusaz, eta “ika-mikak euki doguzan arren, zugaz behar egitea benetan atsegina izan da”, zehaztu dau.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak, “plazerra eta ohorea izan da 20 urtez Batzar honeetako batzarkide izatea, ondo samar egin dodala uste dot, eta parkamena eskatu gura dot denbora horretan baten bat mindu badot”, adierazoz esan dau agur. Calderón De la Barcaren bertso batzuk errezitatuz amaitu aurretik Aldecoa harro agertu da, “Batzarretara ekarri dodazan Arauz Besteko 300 Proposamen inguruetatik %40 baino gehiago onetsi diralako”. Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako arduradunak bere aldartea eskertu deutso, eta Elena Unzueta Baliabide Naturaleko arduradunak “etorkizun zorionsua” opatu deutso.

Podemos Bizkaia taldearen aldetik, gehienetan Foru Aldundiko gobernu taldeagaz oso kritikoa dan Josean Elgezabal batzarkideak bat egin dau giro nasaia gaz, Che Guevararen esaera bat (“Gozotasuna galdu barik gogortu behar gara”) eta Silvio Rodríguezzen bertso batzuk gogora ekarriz, eta Ahaldu Nagusia agurtu dau, “hurrengo agintaldian oposizinoko lider ona izan daitela” opatuz. Nuria Atienza taldekideak parkamena eskatu dau Osokoaren aurrean, azken hilebeteetan behin eta barriro eztulka ibili dalako, baina “daborduko itzi deusat erretzeari” esan dau.

Umore ikutuak be ez dira faltau, Koldo Mediavilla Mahaiko idazkaria, adibidez. Eguneko gai zerrendako puntu baten irakurketan trabau ostean, Batzarren parkamena eta ulermena eskatu dau, “horrenbeste agurraz negar-antuluak daukadazalako”.

Agintaldiko azkenengo Osokoa Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidentearen berba batzuekaz bukatu da. Bere esker ona erakundean behar egiten daben persona guztiei, Batzarretako beharra gizartera zabaltzen laguntzen daben komunikabideetako profesionalei, Mahaiari eta Batzar osoei zabaldu deutse, azkenengo hilebeteetan Batzordeen eta Osokoen kopuruak erakutsi dauen hazkunde handia dala eta. Onena opatu deutse hurrengo agintaldian Batzarretako lanetan jarraituko ez dabenei, eta parkamena eskatu dau “inoiz neurritz kanpoko zer edo zer egin badot, gehienetan ondo ibili nazala uste dodan arren”. Bukatzeko “ideologiengandetik personak dagoz, eta Batzar honeetan laguntasun eta adiskidetasun hartu-emon bikaina dago”, esan dau. Berba horreen ostean, Gernikako Arbolaren kerizpean argazkia atarateko konbitea egin deutso Osokoari.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
27/03/2019

## **El final de la legislatura ha marcado el tono y los contenidos del último Pleno de Control de las Juntas Generales de Bizkaia**

Las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado esta mañana en la Casa de Juntas de Gernika el último Pleno de Control de la presente legislatura, previo a las elecciones forales del próximo 26 de mayo, que renovarán la composición de la Cámara. El tono de despedida y las muestras de mutuo reconocimiento entre los grupos junteros, y entre éstos y el equipo de Gobierno, han marcado un inusual talante en la mayoría de las intervenciones, en un orden del día en el que han predominado las cuestiones sociales y medioambientales, y en el que el Diputado General Unai Rementeria ha tenido ocasión de realizar un balance de los últimos cuatro años de gobierno foral.

Rementeria ha contestado a una pregunta oral formulada por el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, Javier Ruiz, en torno a la valoración de la acción del Gobierno en la presente legislatura. Aunque el Diputado General ha subrayado que “el balance realmente importante será el que haga el electorado en las urnas, y ése lo conoceremos pronto”, no ha ocultado su balance personal, y en este sentido ha señalado: “Hemos trabajado mucho para dejar una Bizkaia mejor de la que encontramos, y creo que lo hemos logrado”.

Rementeria ha destacado como especialmente relevante el hecho de que existan hoy 28.000 personas ocupadas más de las que había hace cuatro años; que sumen otras 100.000 a las que el ente foral presta algún tipo de asistencia social; los 117 millones de viajeros que utilizan anualmente los servicios de Metro y Bizkaibus; y un proyecto de infraestructura emblemático en marcha como son los túneles subfluviales bajo la ría.

### Acción Social

La Diputada Foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha sido otra de las protagonistas del Pleno, al haber respondido a cuatro de las 12 preguntas incluidas en el orden del día. Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) se ha interesado por las mejoras de la situación de las personas cuidadoras profesionales y de la calidad del servicio hacia quienes se encuentran en situación de dependencia, a lo que la responsable foral ha contestado recalcando la ausencia de competencias de la Diputación en materia de relaciones laborales, las prestaciones que se facilitan a personas que cuidan de familiares en el ámbito del hogar y la alta calificación que las personas dependientes y sus familiares otorgan a los servicios ofertado por el Departamento de Acción Social.

El juntero del Grupo Popular Vizcaíno Eduardo Andrés, ha preguntado por el despliegue al despliegue del Mapa de los Servicios Sociales en Bizkaia, señalando que en Bizkaia dichos servicios “son buenos, pero debemos aspirar a la excelencia”. Sánchez Robles ha agradecido el tono de la pregunta y la labor del apoderado a lo largo de la legislatura, y ha precisado que “compartimos el objetivo de proporcionar la mejor respuesta posible a las necesidades sociales”.

Por su parte, Eneritz de Madariaga (Podemos Bizkaia) ha demandado información en torno a la situación en la residencia para discapacidad que regentan las religiosas Mercedarias en Orozko como consecuencia del cambio de entidad gestora en el centro. La Diputada Foral ha asegurado que, aunque la titularidad no se haya modificado, se ha solicitado un informe de auditoría en torno a las condiciones del centro y existe un seguimiento permanente sobre la atención a residentes, y que la Diputación Foral intervendrá en el caso de que haya incumplimiento del convenio firmado en su día.

La última cuestión respondida por la responsable de Acción Social ha sido formulada por Arantza Urkaregi (EH Bildu), en torno a cantidades reclamadas por personas mayores con motivo de la huelga de residencias. Isabel Sánchez Robles ha contestado señalando que “ha sido un procedimiento de cálculo muy laborioso, pero ya se están reintegrando todas las cantidades, y el proceso está ya muy avanzado y esperamos concluirlo dentro del primer semestre de este año”.

### **Sostenibilidad y Medio Natural**

La Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha respondido por su lado a tres preguntas formuladas por la oposición. El representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, se ha interesado por la situación actual de la llamada plaga de la banda marrón en las masas forestales las actuaciones de la Diputación Foral para frenar su avance, especialmente tras la reciente decisión del Gobierno español de no aprobar el uso de las fumigaciones aéreas con óxido cuproso.

La Diputada Foral ha precisado que hay un recurso interpuesto contra esta decisión, pero que en cualquier caso se han implantado otras medidas bajo la supervisión del instituto de investigación agraria Neiker, como un tratamiento experimental alternativo que se pondrá en marcha en colaboración con las diputaciones forales de Gipuzkoa y Araba, o un tratamiento con óxido cuproso desde tierra que ha sido aprobado por Madrid con algunas limitaciones para la protección de zonas pobladas y acuíferos, entre otras.

Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) ha demandado cuáles ser las medidas de control y mejora para la Planta de Tratamiento Mecánico Biológico de residuos en el monte Arraiz, tras las denuncias por parte del comité de empresa sobre el estado de unas instalaciones que son propiedad de la Diputación en las que se han detectado casos de fiebre Q y de legionella. Unzueta ha respondido afirmando que “se ha intervenido y se seguirá interviniendo, siempre a través de la empresa foral Garbiker, para controlar exhaustivamente las condiciones en la planta”.

La última de las cuestiones respondidas por la responsable de Sostenibilidad y Medio Natural ha sido consecuencia de la demanda de David Lopategi (EH Bildu) en torno a las razones por las cuales no se han constituido en Bizkaia Brigadas de Investigación de Incendios Forestales. La responsable foral ha sido taxativa al aseverar que “en Bizkaia se investigan todos los incendios forestales”, si bien ha precisado que los funcionarios del servicio foral de Montes “no son investigadores ni policías”, y que “cuando se detectan indicios de delito, se trasladan a la Ertzaintza y a la fiscalía”.

## **La Naval y la autopista Supersur**

El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha sido el encargado de responder a dos preguntas incluidas en el orden del día de este último Pleno de Control de la legislatura. La primera, formulada por Nuria Atienza (Podemos Bizkaia) se ha referido a los efectos medioambientales el paraje natural del Bolintxu como consecuencia de las obras de ampliación de la autopista Supersur.

Pradales ha asegurado que la institución foral está cumpliendo escrupulosamente la legalidad en materia ambiental en las obras de este vial, que a su juicio “es una obra estratégica que sigue creciendo y necesita ser completada”. Ha rechazado además las alegaciones de la juntera de Podemos en el sentido de que la autopista esté infrautilizada porque “en febrero se registró un incremento de su uso del 12,8%, y actualmente es utilizada por una media de 16.000 vehículos/día, de los que 4.500 son camiones”.

En su segunda intervención, Pradales ha explicado las medidas adoptadas por la Diputación Foral en relación con la situación que se vive en Sestao y la comarca de Ezkerraldea por la amenaza de cierre de La Naval y sus efectos en las empresas auxiliares del astillero. El responsable foral de Desarrollo Económico y Territorial ha contestado señalando que, desde noviembre pasado, la Diputación ha analizado el estado del sector en colaboración con el Gobierno de Gasteiz y con el Foro Marítimo Vasco, identificando a un total de 334 personas desempleadas procedentes de 24 empresas auxiliares. La totalidad del colectivo ha podido ser recolocado, y trabaja a día de hoy en diferentes compañías del sector o conectadas con el Puerto y la actividad marítima. Pradales ha añadido que, de hecho, en el sector naval se ha detectado la necesidad de hasta 300 profesionales con cualificación cuyos puestos no han podido ser cubiertos, y a este respecto ha incidido en los problemas de inserción en el mundo del trabajo cuando se trata de personas de más de 45 años y con baja cualificación laboral.

Los dos puntos restantes en el orden del día del Pleno de Control celebrado esta mañana en Gernika han sido respondidos por los responsables de Cultura y Hacienda, respectivamente. El juntero del Grupo Mixto Arturo Aldecoa ha preguntado por las políticas para apoyar el emprendimiento cultural de origen privado, a lo que la Diputada Foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha contestado enumerando los proyectos impulsados desde su Departamento que se encuentran en diversas fases de desarrollo, entre los que ha destacado el futuro Museo del Patrimonio Industrial o la revitalización del Museo Marítimo.

Por su parte, el Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha respondido a la cuestión planteada por Arantza Urkaregi (EH Bildu) en torno al Fondo de Innovación implantado por la Diputación Foral de Bizkaia en junio de 2018, y los escasos resultados hasta la fecha en términos de proyectos financiados. Iruarrizaga ha precisado que, por el tipo de empresas de que se trata (startups, firmas de pequeña dimensión, proyectos innovadores...), éstas requieren mayor tiempo de maduración pero que, en todo caso, “se trata de un fondo exclusivamente privado, en cuya gestión no interviene la Diputación Foral de Bizkaia”.

## **Momentos para las despedidas**

En todo caso, y junto a las preguntas, réplicas y contrarréplicas típicas de un Pleno de Control, el de hoy ha estado marcado por un ambiente mucho más cordial y distendido de lo habitual, como corresponde a una última sesión plenaria de legislatura, a la incertidumbre de quiénes repetirán en la próxima Cámara o en el Gobierno Foral, y a la certeza de quienes ya tienen constancia de que no formarán parte de las listas electorales para la elección del próximo 26 de mayo.

Así, el Diputado General, Unai Rementeria, ha mantenido un intercambio dialéctico inusualmente afectuoso con quien ha sido uno de los junteros más críticos con sus actuaciones a lo largo de la legislatura, el portavoz popular Javier Ruiz, a quien incluso ha estrechado cordialmente la mano cuando ambos se han cruzado en el centro del hemiciclo. Rementeria ha señalado que “igual es mi última intervención en esta Cámara” y, dirigiéndose al Pleno, ha dicho que “los protagonistas son ustedes, y su comportamiento ha sido ejemplar en la mayor parte de las ocasiones”.

Por su parte, Javier Ruiz ha recordado a los mentores de su partido que propiciaron su llegada a las Juntas Generales de Bizkaia (Eduardo Barreda, Antón Damborenea y Nerea Llanos, presente en la tribuna de invitados), y ha agradecido su labor a la Mesa, al resto de los grupos y a la plantilla de la Cámara foral por su trabajo. Ha destacado el “buen tono y buen nivel parlamentario” de las Juntas Generales de Bizkaia, y ha felicitado al ejecutivo foral y a su Diputado General porque “han defendido su acción de gobierno con buena nota”, concluyendo que “nuestras diferencias políticas no han sido nunca personales”.

Parte del equipo de Gobierno se ha mostrado especialmente afectuoso con dos de los junteros que no repetirán y que hoy les han formulado sendas preguntas. Eduardo Andrés (Grupo Popular) ha concluido sus intervenciones en la Cámara vizcaína declarando que “hemos discutido mucho, a mí me han llegado a llamar filibustero parlamentario, pero al mismo tiempo ha habido acuerdos y han salido adelante algunas de nuestras propuestas, eso me lo puedo llevar a casa, y le doy las gracias a la Diputada Foral por su buena disposición”. La diputada de Acción Social Isabel Sánchez Robles le ha agradecido “su tono y sus aportaciones”, y ha precisado que “aunque ha habido encontronazos, ha sido un verdadero placer trabajar con usted”.

El representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, se ha despedido declarando que “ha sido un placer y un honor haber sido juntero durante 20 años en esta Cámara, espero haberlo hecho razonablemente bien, y pido disculpas si a alguien he podido ofender en este tiempo”. Antes de concluir con el recitado de unos versos de Calderón De la Barca, Aldecoa se ha mostrado orgulloso de haber logrado que “se hayan aprobado más del 40% de las alrededor de 300 Propositiones No de Norma que he traído”. La responsable de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, le ha agradecido su talante, mientras que la responsable de Medio Natural, Elena Unzueta, le ha deseado “un futuro feliz”.

Por parte de Podemos Bizkaia, el juntero Josean Elgezabal, habitualmente muy crítico con el equipo de gobierno de la Diputación Foral, se ha unido al ambiente distendido recordando una frase de Che Guevara (“Hay que endurecerse sin perder la ternura”) y unos versos de Silvio Rodríguez, y se ha despedido del Diputado General deseándole “que sea un buen líder de la oposición en la próxima legislatura”. Su compañera Nuria Atienza se ha disculpado ante el Pleno por las persistentes toses que le han acompañado en los últimos meses, aunque ha advertido que “ya he dejado de fumar”.



Tampoco han faltado las notas de humor, como la protagonizada por el secretario de la Mesa, Koldo Mediavilla quien, al trastabillarse en la lectura de uno de los puntos del orden del día, ha pedido disculpas y la comprensión de la Cámara porque “se me saltan las lágrimas con tanta despedida”.

El último Pleno de la legislatura se ha cerrado con unas palabras de la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, que ha extendido su agradecimiento a las personas que trabajan para la institución, a los profesionales de los medios de comunicación que ayudan a trasladar a la sociedad el trabajo legislativo, a la Mesa y a la propia Cámara por el considerable incremento en el número de Comisiones y de Plenos que ha registrado el último periodo de sesiones. Ha deseado lo mejor a quienes no continuarán en labores parlamentarias en la próxima legislatura, y ha pedido disculpas “por si en alguna ocasión me he excedido, aunque confío en haber acertado las más de las veces”, concluyendo que “por encima de las ideologías están las personas, y en esta Cámara reina una excelente relación de cordialidad y amistad”. Tras estas palabras, ha invitado al Pleno a compartir una fotografía conmemorativa a la sombra del Árbol de Gernika.